



AZAROAK 13

LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz eta
Nerea Urbizu**
ABESLARIA: **Manolo García**

NON DAGO ILARGIA? EZ DA IKUSTEN
LOTSATUTA, EZKUTATUTA
ITSASOA BERE ISPILUA ZELA
ENBATA BELTZAK EZABATUA

HONDARRAK EZ DU JADANIK ITXOITEN
ZABORREZKO OLATU URDINA
ETORKIZUNA ERAIKITZEN OMEN DUTE
BAINA SUNTSITUZ TA SORTUZ MINA

AZAROAK HAMAHIRU
ENEKOK MARGOAK ATERAKO DITU
HAIZEAK KOLOREAK SAKABANATUZ
ILARGIAK KRESALA USAINDUKO DU.

LOREA MOZTEKO EZPATA ZORROZTU
MARGOTUTA EZIN DA USAINDU
UDABERRIA EZINGO DUTE MOZTU
KEAK MEZUA EKARRIKO DU.

BASOAK BASAMORTU BIHURTUTA
EZINGO IZARRAK BESARKATU.
SARE ITZELAK HEDATZEN HONDOAN
ARRAIN TXIKIEK ARNASA GALDUZ.

AZAROAK HAMAHIRU...
URA IGOTZEN ARI DA BUSTIKO GARA
ERREPIDEZKO ARO MODERNOA
ILUNDUKO URTAROAK

AZAROAK HAMAHIRU... (BERRIZ)